

572 zenbakia

2011 / 03-25 / 04 - 01

AURREKO ZENBAKIAK

HURRENGOA

[Portada](#) [Elkarrizketa](#) [Gaiak](#) [Kosmopolita](#) [Atzoko Irudiak](#) [Art Aretoa](#) [Artisautza](#)

>



Hasi gaitezen atzera

Iñaki PETXARROMAN



1 vote



Japoniako krisi nuklearrak ongi azaldu du ingurumenarekin eta lurrairekin dugun harremana zertan oinarritzen den: itsukerian eta zuhurtziarik ezean. Fukushimako istreria gertatu aurrelik ondo genekien zein diren industria nuklearren arriskuak, ezinezkoa dela haren hondakinak kudeatzea, eta ondorengo belaunaldiein inori gustatuko ez litzaiokeen arazoa utziko diogula kudeatzeko... Alabaina, istrupuaren aurrelik lobby nuklearra borroka oso garrantzitsua ari zen irabazten munduan: krisi energetikoaren eta klima aldaketaren arazoen aurrean alternatiba sasi-berdea balitz bezala saltzen ari zen bere teknologia. Eta gure agintariekin sinistu, eta babestu. Orain, atzera egiten ari dira Alemanian, AEBetan, Europako Batasunean... Edo haizea berri noiz aldatuko zain daude. Hondamendien aurrean dugun amnesia kolektiboak ea noiz ematen dien aukera industria nuklearra berriaz hauspotzeko. Berriro ere gure miopia eta ikusi nahi eza geratu dira agerian; Behin baino gehiagotan egin behar dugu topo harri berarekin. Zenbat Txernobyl behar dira, ikasteko eta aintzat hartzeko, goazen bidezidorak irteerarik gabeko kale itsu batera garamatzala?

Funtsean arazoa hau da: orain arteko eredu energetikoa agortuta dago. Erregai fosilak bukatzean daude —gasa eta petrolio— eta energia atomikoak badakigu zer dakarren. Bada, beste eredu guztiz ezberdina jarri behar da martxan: ezinbestez gutxiago kontsumitu, aurreztu eta iturri berriztagarriarietik elikatuko den eredua, iraunkorra izango bada. Hori ikasten ez dugun bitartean, Japonian bizitzen ari diren antzeko egoerak igaro beharko ditugu.

Eredu hau inoiz ez bezalako arazo ekologikoak sortzen ari da munduan. Eta Lurra bera arriskuan egon ote daitekeen hasi gatzaizkie entzuten zientzialariei. Klima aldarazten ari gara: Euskal Herrian 1,5 gradu berotu da batez besteko temperatura azken hiru hamarkadetan. Berotegi efektuko gasak dira errudunak, petrolio eta gasea neuri gabe sortzen dituen eredu energetikoa eutsiezina. Bide honetatik segitzen badugu, 4-5 gradu artean berotuko dira temperaturak gurean mende amaieran —zientzialiek hala ohartarazi digute—. Mende erdirako 15 zentimetro artean goratuko da Bizkaiko itsasoaren maila. Hondartzan erdiak baino gehiago desagertuko dira (Zarauzko esaterako). Egun hirigune diren itsasadarretako lur asko irentsiko ditu itsasoak. Eta, gauzak horrela, adibidez, (ez diezadala gaizki har, otoi) Zarauzko udala ez dut oso kezkatuta ikusten zientzialiek ohartarazi dicon egoeraz, nahiz eta herri hori, hondartzak gabe, zaila egiten zaiztan irudikatzen. Zertaz biziko dira? Tira, lasai, zientzialariak “ekologista katastrofisten” tesietara lerratzen direnean ez zaizkigu interesatzen. Ez diegu sinesten. Ez dugu neurrik jarriko egoera zuzentzeko. Japonian bezala, olatua gainera etortzen zaigun arte.

Teknologiarik “seguruena” zuen Fukushima 1eko zentralak ere. Lehertu den arte. Aurrerapenaren kontuak, jakina! Ez dezagun ahaztu hondamendi aukerak ditugula Euskal Herrian ere: Garoñan, Itoitzen, zentral kimikoetan... Zer gertatuko da inoiz aditurek iragamaritako ezkerreko hegalarren mugimenduen ondorioz Itoizko urtegiaren horma erortzen bada? Zer gertatzen ari da egunero Zabalgarbin erraus bihurtzen ditugun milaka tona hondakinekin? Nora doaz minbizia eragiten duten dioxina, furano eta gainerako metal astunak?

Geratu eta berri pentsatu behar dugu. Abiatu garen bidezidorak guregan eta hurrengo belaunaldiaren izango dituen eraginak hain dira lariak... 30 urtetan hirukoitzu egin dugu artifizializatutako lur kopuria Hego Euskal Herrian: 30.000 hektarea genituen zoru bilakatuta 1980ko hamarkadaren hasieran eta 90.000 ditugu gaur egun. %47 handitu dugu klima aldaketa eragiten duten berotegi efektuko gasen kopuria. Europa osoan autobioa eta autobide kilometro gehiuenten duen herrialdeetako bat da gurea, eta porlan kopuru handiena erabiltzen duena pertsona bakoitzeko... AHTak gure mendi-ibarrak porlanez betetzen jarraitzen du, eta diru publiko kutxak husten: osasun publikoa, pentsioak eta gizarte zerbitzuak oraindik ere txiroago bihurtzen.



belapartia

Iñaki Petxarroman

20 urtetan bikoitzu egin dugu pertsona bakoitzak sortzen duen zabor kopurua, eta murritzu, berrerabil eta birziklatu txostenetako teoria baino ez dira, eguneroko jardunetik urrutiko kontuak. Bizkaiko itsasoa arrainik gabe utzi, eta armatutako atunketarietan doaz arrantzaleak Somaliara han gosez diren herritarrei proteina ituri beharrezkoa duten arraina kentzera. Eta haien itsasoetan hondakin toxiko eta nuklearrak tonaka botatzera.

Munduko oihanen deforestazioaren arduradun gara, eta gure aztarna ekologikoa munduak paira dezakeenaren oso gainetik dago. Alegia, mundu osoko biztanleek guk bezainbeste kontsumitu eta kutsatuko balute hiru Lur planetako genituzke. Alegia, natur baliabideak agortzen ari gara, ez gureak bakarrik, baita besteenak ere. Eta, hazkundearen logikaren paradoxak: natur baliabideak agortzen diren mundu batean, inoiz agortuko ez balira bezala jokatzen jarraitzen dugu.



Foto: CC BY - epSos.de.

Azken aldian gure inguru honetan Lurrari ikusten dizkodian orbain gero eta sakonagoek bultzatu naute **Lurra, zorua bailitzan** (Txalaparta, 2011) liburia idazteria. Gogoetatzeko ordua dela iruditzen zait, eta gogoeta eskatzen diet herritarrei (sistema honen oinarri herritarra bagarelako), eta agintariei, haiak direlako enpresen lobby-en eta multinacionalen aginduz ingurumenaren —eta herritarren (berriro ere Japoniakoa gogoratu!)— aurkako politika estrategikoak aurerra eramatzen dituztenak.

Euskal Herrian ez gara liderrak ezertan. Naturari eta Ama Lurrari egindako erasoetan gara, izatekotan, eredu. Hizkuntzaren erabilera maltzurraren azpian, has gaitezen proiektuei dagokien moduan deitzen: errauste planta ez da energia balioztatzeko planta, handik sortzen den energia ezin da esan berriztagarria denik (are eta gutxiago diru publikoz lagundi); Pasaiakoa ez da eko-portua, Gipuzkoan dagoen itsas natur altxorrik handienetako bat suntsituko duen azpiegitura baizik; garapen eredu hau ez da iraunkorra, ondorengoenetat liratekeen baliabideak bueltarik gabe agortzen ari garelako; autoa errege bihurtu duen garraio sistema hau eutsiezina da; AHTa ez tren bat, lurra suntsitzen duen hegazkinaren pareko energia irenslea baizik..

Iberdrolak, Endesak, Repsolek, British Petroleum, lobby nuklearrak, zementuegileek, erraustezaleek... denek hitz egiten digute iraunkortasunaz, denak jantzi zaizkigu berdez... Biluz ditzagun, eta, bereziki, biluz dezagun hizkuntza... Jar diezaiogun proiektu bakoitzari dagokion etiketa, jarri gaitezen ispi luaren aurrean. Agian, orduan, ohartuko gara gutxiogorekin bixitzea, posible ez ezik, onuragarria ere badela; eta, zoriontsuago ejiteaz gain, ondorengoei guri utzi diguten moduko planeta bat uzteko aukera emango digula. Ez diegu gutxiago zor.

Beraz, denbora baldin badago, has gaitezen atzera.